



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-12-29

VII.URTEA 1.891.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOSE MARI OTERMIN KAZETARIA

«Gizarte honetan euskararen aldarrikapena epeldu egin da»

AMEZKETA EITBn 27 urte luzez lanean aritu eta gero erretiroa hartu berri du kazetariak

EUSKAL KAZETARITZA 1976. urtea, euskal kazetaritzan, inflexio puntu bat izan zela dio amezketarrak 2-3



VIII. Pilota Topaketako partaideak Alegiako frontoian elkartu ziren lehiari ekin aurretik. I.GARCIA

89 NESKA-MUTILEN ARTEKO LEHIA IKUSGAI VIII. PILOTA TOPAKETAN

PILOTA Altzo, Alegia, Amezketa eta Ikaztegieta herrietako pilota eskolek eta guraso elkarteek antolatu dute txapelketa 6

Bizkor System enpresako 21 langile azken 4 soldata jaso gabe aurkitzen dira

ANOETA ELA: «Langileei dagokien Geroa-ren kuota ordaindu dute, baina diru hori ez da Geroa-ra iritsi eta zuzendaritzak hartu duelakoan daude» 5



Jende ugari gerturatu zen atzokoan ere Merkatu Txikira. E.EZEIZA

Ireki dute jada Laskorain ikastolaren Merkatu Txikia

TOLOSA Aurtengoan ordubete lehenago irekitzen dute Kultur Etxeko azoka, 10:00etan 4

Kimetz

Neska eta Mutil arropa

Kale Nagusia, 13 • Tel.: 943 249 496
TOLOSA

E Elkarrizketa

JOSE MARI OTERMIN | Kazetaria



JUAN CARLOS RUIZ - ARGAZKI PRESS

«Ez dakit zer den okerrago, kritika txarra edo kritikarik eza»

Hedabideak » EITBn 27 urtez lanean aritu ostean erretiroa hartu du; euskarazko komunikabideek 'behar' hitza gehiegi erabiltzen dutela dio.

URTZI URKIZU (BERRIA)

Eduardo Txillidak *Haizearen Orrazia* egin zuenean, kazetari hasiberria zen Jose Mari Otermin (Amezketan, 1948). Herri Irratirako elkarrizketa egin zion orduan, eskultura multzoa itsasoaren parean jartzen ari zirela. «Herria egiten» ari zirela sentitu zuen orduan. Garai hartatik gaur arte, «ibilian» egin du bidea, Euskadi Irratirako azken kronikak Donejakue bidetik «ibilian» egin dituen arte. Erretiroa hartu eta egun batzuetara egin du burututako lanaren hausnarketa. **Zeruko Argia-k 1976a Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zuenean, baziren hiru urte Loiola Herri Irratian hasia zirela. Herri Irratitik 24 ordu euskaraz antolatu zenituzten, martxoaren 27an. Hamalau mahai-inguru, 25 elka-**

rrizketa, eskualdeetako ehunka albiste... Kazetaritza bizia euskaraz. Nolakoa izan zen garai hura, eta zer giro zen euskal kazetarien artean?

Euskal kazetaritzak 1976an bazeraman goranzko abiada bat. Jose Ramon Belokik intuizioa zuen goranzko grafik horretan puntak gora egin eta puskatu behar zuela. Esperientzia horren arrakastak indarberri egin gintuen. Orduan hasi ginen galdetzen ea zenbat kazetari ote ginen, eta premia berriak baleude zenbat jende beharko litzatekeen. 1976a inflexio puntu bat izan zen, indarreko unea. Kazetarien artean denetarik zegoen, historikoak eta landare berriak. **Irratian hasi zinenean, Franco bizi zen artean, nolakoa zen zentsura?**

Politika informazioerik ez zegoen egiterik, eta hori baino zentsura handiagorik ez dago. Baina hain bizia zen orduan Euskal Herria, gauza asko genituen egiteko. Zuzenean zentsura hausterik ezin genuen arren, ikastolen mugimendua lagundu eta kantagintzari

«Ez nuen uste telebista euskaraz 24 orduz edo euskarazko egunkaria izango genuenik»

«Herri Irratiak bere lekua bazuen, eta hura saltzea galera handia da euskal kulturarentzat»

tarte zabala ematen genion, esaterako. Esparru asko genituen lantzeko. Dena zegoen egiteko.

70eko hamarkada hartan, imajinatzen al zenuten euskarazko irratia, telebista eta egunkaririk ikusiko zenutenik?

Ez, ez geneukan argi horrelako hedabiderik euskara hutsean izango genuenik. Koldo Mitxelenak esaten zuen hizkuntza orok bere espazioak dituela. Nik, behintzat, ez nuen pentsatzen telebista euskaraz 24 orduz edo euskarazko egunkaria izango genuenik. Kirolean, adibidez, Herri Irratian euskaraz pilota eta arrauna ematen genituen. Baina Txomin Perurena txirringularia ez genuen sekula euskaraz elkarrizketatu.

Herri Irratia zuretzat izan denekin, nola jaso duzu irratia saldu behar duten berria?

Mingarria izan da. Banekien zailtasun handiak zituztela, baina gutxi-asko besteak dabilzan bezala. Euskara aldetik galera handia da. Batzuek pentsatuko dute euskarazko hedabide publikoak hor daudela, eta besteek, merkatuaren legeetara makurtuz, ez dutela euskaraz egingo. Gure gizarte nahasi eta konplexu honetan, Herri Irratiak bere lekua bazuen, eta euskal kulturarentzat galera handia da.

1982an, Aste Santuan, Ramon Labaienek Euskadi Irratia sortzeko eskatu zizun. Nolakoa izan zen irratia eratu arteko prozesua?

Bi jarrera zeuden Euskadi Irratiaren inguruan. Batzuek esaten zuten esparru jakin batzuk jorratu behar zituela, eta beste batzuek esaten genuen irratia estandarra izaten saiatu behar genuela. Edozertaz ariko zen irratia bat nahi nuen. Hiru kezka izan nituen: programazioaren nondik norakoak zein izango ziren, alor teknikoan nola izan berritzaile, eta jendea nola aukeratu. Sinatu nuen pape-

«Batzuen ustez Euskadi Irratiak esparru jakin batzuk jorratu behar zituen»

«Beste batzuek irratia estandarra izaten saiatu behar genuela genion»

rean, irratia urrirako martxan behar zuela jartzen zuen. Baina, nahiz eta lanean itsu-itsuan aritu, ez nuen epea bete, eta azaroaren 23an hasi ginen.

Nolako langileak aukeratu zenituen?



Jende ugari hurbildu da Merkatu Txikira, lehendabiziko egunetan, ganga onenak aurkitzen asmoz. E. EZEIZA

Zabaldtu ditu atea Laskorain ikastolaren Merkatu Txikiak

Gizartea » Sahara eta Indiako ikastetxe batzuei laguntzeko erabiliko da dirua; mota guztietako produktuak erosi daitezke.

ERREDAKZIOA

Beste behin, elkartasun helburua duen ekintza batengatik ireki ditu atea Kultur Etxeko areto nagusiak; bertan, joan den larunbatetik zabalik dago Laskorain ikastolak jarritako Merkatu Txikia. Aurten gainera, krisia dela eta, jendeak aukera polita izan dezake bertan, opari berezi eta aldi berean merke bat erosteko.

Hamalagarren urtez antolatu du aurten Tolosako ikastolak Merkatu Txikia. Beste behin ere, honen helburua da bertan lortutako diruarekin herrialde txiroei laguntzea. Oraingoan Indiako eta Saharako proiektuetara bideratuko dute bildutakoa.

Aurtengo honetan, ordutegian aldaketak egitea erabaki dute. Hala, goizetan, ordu bat lehenago irekiko da. Ondorengo ordutegia du: goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara.

Merkatu Txikia, aurrez ikasleekin gelaz gela landutako Unitate Didaktikoaren ekimenetako bat da. *Eutsi Elkartasunari* lelopean lantzen dituzten gaien bitartez Laskorain ikastolako hezkuntza komunitatea osatzen dutenek, ikasleen balioak, jarrerak, emozioak eta portaerak pixkanaka hobera aldatzen saiatzen dira. Hori dela eta, oraingoan ere ikasleak nahiz irakasleak ari dira lanean Kultur Etxeko merkatuan. Beraiek arduratzen dira material berria ateratzeaz, dirua biltzeaz eta gauzak txukuntzeaz.

Laskorain ikastolakoan esantzan, urtero bezala, lehendabiziko egunetik hasi da hurbiltzen jendea, zer dagoen ikustera. «Gainera, oso egoera onean dauden tresnak prezio oso baxuan erosi daitezke», gaineratu zuen Koldo Jauregi irakasleak.

Indiara eta Saharara bideratuko da laguntza

Laskoraino ikasle ohi batzuen proposamen bati jarraituz, Indiako ipar-mendebaldeko Sanand herriaren zentro soziokulturala eraikitze erabiliko da irabazien zati bat. Lurralde horretan, gizonen %80 dago alfabetatua eta emakumezkoen %58 soilik. Proiektu honekin, ikasleak biltzeko gunea biltzeko gain, emakumeek euren arazoez eta irtenbideez hitz egiteko lekua izatea lortu nahi dute. Asmoen arabera, bi urtetan

garatuko dute zentroaren proiektua Ibarrik misio taldeak eta Vedruna Seva Sozietate elkarteak elkarlanean.

Goizez 10:00etatik 13:00etara dago zabalik eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara

Diruaren beste zatiarekin Saharara askeko Meheriz herrian kokatzen den proiektu bat lagunduko dute. Bertan, Lehen Hezkuntzako ikastetxe baten eraikuntzarako eta ekipamendurako erabiliko dute bildutako dirua. Gazteei hezkuntza bermatzea du helburua, gero hauek goi mailako ikasketak egin ditzaten. Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek egingo dute proiektuaren jarraipena.

Bestalde, saltzen ez den material eta arropetatik, kopuru bat Saharara bidaliko da. Gainontzekoa beherri, Emauseko emango zaie, beherriek saldu dezaten.



Atzo, telebistaren aurrean jarri eta abestuz jolastu ziren gazteak. E. EZEIZA

Gaur, Wii bideo jokoan ibiltzeko aukera

Aisia » Topagunean Gazte Astea ari dira ospatzen joan den larunbatetik; gaur eta bihar izango dira azken ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Gabonak opor garaia izaten dira ikasleentzat, eta eskolaz kanpoko ekitaldietan parte hartzeko garai egokia. Hau ikusita, eta Tolosako gazteak aspertu ez daitez, Gazte Astea antolatu dute Tolosa Topagunean. Joan den larunbatean, talo tailerrarekin hasi zituzten ekitaldiak. Bertan, euskal tradizio

jakia prestatzeaz gain, dastatzeko aukera izan zuten. Atzo berriz, Sing Star bideo jokoan ibili ziren. Hala, telebista pantailaren aurrean jarri, eta abeslari ospetsuen abestiak kantatu zituzten elkarrekin, karaoke joko honen bitartez.

Gaur, ekintzekin jarraituz Wii jokoarekin ibiliko dira 17:00etatik aurrera. Horrez gain, gainontzeko egunetan bezala, mahai futboleko, kartetan, mahai tenisean... ibiltzeko aukera izango dute.

Gazte aste azken ekitaldia bihar izango da. Gainontzeko egunetan bezala 17:00etan zabalduko ditu atea, eta amaitzeko, eskularen tailerra izango da.

Laburrak

Ikastn zerbitzuak ikastaro berriak prestatu ditu

HEZKUNTZA » Tolosaldean Ikastn Bitartekotza Zerbitzuak datorren urterako ikastaroak antolatu ditu jada. Ikastaro mordo eta ikaskuntza arlo ezberdinetakoak izango dira oraingo honetan ere. Hauetan izena emateko epea urtarilaren 7an irekiko da. Hilabete horretan bertan, 4 eta 5ean, eskualde osoan zehar kartelak jarriko dituzte; Kultur Etxean, elkarrekin, udalarekin eta abar... informazioa zabalteko.

Gaur arratsaldean Ohiko Osoko Bilkura izango da

POLITIKA » Gaur 19:30ean Udalaren Ohiko Osoko Bilkura izango da udaletxeko batzar aretoan. Denera, hamar puntuk osatzen dute gai zerrenda. Tartean honako hauek: Tolosako Udalaren 2010eko Aurrekontu Orokorra onartzea; Udaleko eta lurramendi Egoitzakoa personala onartzea; jasangarritasunerako II. Tokiko Ekintza Planaren onarpena eta urriaren 13ain izandako atxiloketen inguruan aurkeztutako moziok.



sarrerak

HITZAK bi sarrera du

**LAGUN ARO GBC
CAJA LABORAL BASKONIA**

saskibaloi partidarako

Urtarrilak 3 • Igandea • 12:30ean Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

Bizkor System enpresako langileak kalera atera dira

Anoeta » Elkarretaratzea egin zuten pasa den larunbatean Tolosan, azken lau soldatak jaso ez dituztela salatzen.

ERREDAKZIOA

Anoetan dagoen Bizkor System enpresako 21 langileak «nazkarnazka eginda» daudela eta euren arazoa «kalera ateratzeko» erabakia hartu dutela esan du Iñigo Alzolak, ELA sindikatuko Tolosako enpresa txiki eta ertainetako (ETE) ordezkaririk. Hori dela eta pasa den larunbatean elkarretaratzea egin zuten Tolosan.

Lau soldata kobratu gabe

21 langileek ez dituzte azken 4 soldatak jaso, ezta 2009. urtean atzerrian egindako lanengatik jaso beharreko dietak, kilometrajea eta lanordua ere. «Bizkor System-ek

CAF, FAGOR eta BOSCH enpresarako lanak egiten ditu eta jabea Victor Zubelzu da. Zuzendaritzak kudeaketa kaskarra egin du eta ondorioz langileek ez dituzte soldatak jasotzen», argitu du Iñigo Alzolak.

Ez da arazo berria eta orain arte langileek irtenbideak bilatzeko eskatu dio zuzendaritzari, «EREa sartzeko, itxialdi txukun bat, kalera ateratzeko... langileek irtenbideren bat eskatu izan dute, baina ez dute kasurik egiten. Gauza asko agintzen dituzte, baina ez dute ezer egin eta horregatik arazoa kalera ateratzeko adostu dute langileek», argitu du ELAko kideak.

Aipatutakoari 2009. urtean Geroa aseguruarekin gertatutakoa gehitu behar zaio. ELAko kidearen hitzetan, langileek Geroa aseguru ordaindu dute aurretik, baina diru hori ez da Geroa-ra iritsi eta zuzendaritzak hartu duela dio.



Tolosako Triangulon egin zuten elkarretaratzea pasa den larunbatean. HITZA

Alkatetza etziko presoen aldeko manifestazioarekin bat

Villabona » Aiztondo bailaran presoen senide eta lagunek egingo duten manifestazio isilean parte hartzeko deia egin du.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak «babes osoa» eskaini dio prentsa ohar baten bidez «Aiztondo bailaran presoen senide eta lagunek» etzi, hilak 31n, egingo duten manifestazio isilari.

«Urte gogorra joan da aurtengoa, inoiz izan dugun preso kopururik altuena dugu Villabonan, errepresioak ere gogor jo du hainbat herritar 2009. urtean. Remi Ayestaran, Udal honetako zinegotzi eta alkateordearen heriotza ere aipatu behar da. Villabonako preso eta haien senide zenbaiten aurka katxeo eta biluzteko ahaleginak ikusten ari gara funtzionarioen aldetik, haien duintasunaren gainean barre egiteko helburuarekin. Presoen eta senideen arteko komunikaziorako duten eskubidea bortxatzen ari da uneotan Espainiako Estatuak», nabarmendu du alkatetzak.

Villabonako Udalak argi du «errepresioak ez duela Euskal Herriak Espainiako eta Frantziako Estatuarekin daukan gatazka konpontzen laguntzen», eta honenbestez, bere konpromisoa «gatazkaren konponbidean, herri honen behar duen aldaketa politikoa gauzatzeko zereginen, jarririk dugula berrestea» dela nabarmendu du. «Euskaldunok gure hitza eta erabakiaren jabe izango garen eskenatoki politiko batek soilik erdietsiko baitu gatazka konponbidean jartzea», gaineratu du.



Manifestazioa iragartzeko eskainitako prentsaurrekoa. HITZA

Eskuratu



ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko **DVDa berria** rekin



gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

Txapelketako bertso hautatuak 2 DVDtan

ABENDUAREN **24**TIK AURRERA,
zure kioskoan



+ 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Aralarri buruzko mahai-ingurua antolatu dute gaurko gela balioanitzean

Amezketan » Mendikatearen egungo egoera eta aurrera begira nolakoa izatea nahi den eztabaidatuko dute.

ERREDAKZIOA

Aralar hizpide izango da gaur Amezketan egingo den mahai-ingurua. Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena dela eta antolatu du Udalak ekitaldia. 19:30ean hasiko da balioanitzeko gelan. Bertan jorratuko den gaia *Aralar gaur egun nola ikusten dugun eta nola ikusi nahiko genukeen* izango da.

Lau parte-hartzaile izango dira bertan. Bixente Gorostidi eta Iñaki Gorostidi aralarzaleak eta Alfredo Moraza eta Luis Mari Zaldua adituak ariko dira solasean. Morazak hainbat liburu idatzi ditu eta Zalduak hainbat txosten egin ditu mendikatearen inguruan. Moderatzaile Bittor Oroz Ataungo alkatetea ariko da. Amezketako Udalak mahai-ingurura joateko gonbitea luzatu eta entzuleriak ere bere iritzia ematera animatu ditu.

Erakusketa zabalik bihar arte

Mankomunitatearen 600. urteurrenarekin lotuta ere, erakusketa ikusgai dago Amezketan bihar arte. Gela balioanitzean ikusi daiteke, 17:00etatik 19:00etara. Bertan Aralarren baliabide naturalak, artzaintza, meategiak, historia, kultura... ezagutu daitezke.

VIII. Pilota Topaketa abian da 89 neska-mutilen partaidetzarekin

Pilota » Atzo hasi ziren sailkapen partidak; Alegia, Altzo, Amezketan eta Ikaztegiatiko 6 eta 15 urte arteko pilotariak ari dira.

IMANOL GARCIA

Atzo hasi ziren Gabonetako VIII. Pilota Topaketaren sailkapen partidak eta guztira 89 neska-mutil ari dira parte hartzen. Pilotari txikieneztat lehenengo txapelketa izaten da eta ilusioa eta tentsioa ere ikusten da bere aurpegietan.

Alegia, Altzo, Amezketan eta Ikaztegiatiko pilota eskolek eta guraso elkarrekin antolatzen dute eta herri horietako sei eta hamabost urte arteko pilotariak aritzen dira lehian.

Topaketari hasiera emateko parte-hartzaile guztiekin familia argazkia atera zuten atzo Alegiako frontoian eta ondoren pilotari bakoitzak bere partida jokatzera joan zen. Atzo bezala gaur ere sailkapen partidak dituzte, 16:00etan hasita. Maila guztietako finalak Ikaztegiatiko izango dira larunbatean, urtarrilaren 2an. Horiek ere 16:00etan hasiko dira.

Bost maila

Parte-hartzaileak bost mailatan banatu dituzte antolatzaileek: benjamin-aurrekoak (2002 eta 2003an jaiotakoak), benjaminak (2000 eta 2001ean jaiotakoak), alebinak (1998 eta 1999an jaiotakoak), infantilak (1996 eta 1997an jaiotakoak) eta kadeteak



Txikienek, aurre-benjaminak, jokatzan duten lehenengo txapelketa izan ohi da Gabonetako Topaketa. I. GARCIA

(1994 eta 1995ean jaiotakoak). Maila bakoitzak bere frontoia izango du sailkapen partidetarako. Hala, benjamin-aurrekoak eta kadeteak Alegiako pilotalekuan ari dira; benjaminak Amezketakoan; alebinak Altzo eta infantilak Ikaztegiatikoan. Gaur izango da sailkapen partiden bigarren eguna eta, esan bezala, 16:00etan hasiko dira norgehiagokak.

Materialari dagokionez, denak pilota goxoekin jokatzan ari dira eta, beraz, ez dute esku-babesik erabiltzen.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Eskiatzeko bi makila.** Eskiatzeko bi makila aurkitu ditugu. Galdu dituenak deitu 628 697 587 telefono zenbakira.



Kadeteen mailan atzo jokatu zuten lehenengo partidako pilotariak. I. GARCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hilberria

MARI KARMEN MENDIZABAL

(Barandiaran taberna)

Maitagarri, esker oneko, pertsona moduan zoragarri Alaitasun aurpegia eskeiniz edonori Momentu on ugari biziarazi diogu elkarriz Emendako guztia nahi genizuke itzuli Negarra bihurtuz, maitasun iturri



Lehengusu on bati, bihotz bihotzez:

Josepa (+), Maritere eta Jesusmari, Alaitz eta Pikin, Goizatz eta Peio, Ihintza, Iraitz, Oinatz, Eneritz, Maritza.

BEASAIN

2009ko abenduaren 29a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Olentzeroren zertzeladak eta Eguberrietako ekimenak

ASIER IMAZ

Eguberrietako oporrek aurrera jarraitzen dute eta aisialdirako eskaintzak ez dira amaitu. Hala eta guztiz ere, Olentzeroren arrastoak gurean jarraitzen du oraindik.

Belauntzan, Gaztelun eta Amezketan

Astoa benetan lagun zuela iritsi zen ikazkina Belauntzara, eta urtero bezala, herriko haurrek harrera beroa egin zioten.

Gaztelun berriz, benetan oroitzen politak utzi zituen Olentzerok; Larte menditik behera zetorrela Eihartz haur jaioberriaren baserrian gelditu zen gurasoak zoriontzeko.

Behin herrian, Erroizpe Kiroleta Kultur Elkarteak, ikazkinak opariak banatu zituen haurren artean. Baina azken zertzelada falta zitzaion: 100 urte dituen amona Mariaren etxera joan zen ondoren, oparia eskuetan zuela eta ume guztien laguntzarekin. Azkenik, haurrek makilabatzukoparitu zituzten Olentzerori, egindako lan polita eskertu nahian.

Amezketari dagokionez, hilaren 24ean preso eta iheslarien alde ibili zirenaitez-atekantuan hainbat herritar. Irati Mujika eta Kandido

Zubikarainen panelak hartuta «gogotsu» ibili ziren baserriz-baserriz. Partaideen esanetan «urte askotan ibili gara amezketarrok Eguberrietako egun honetan preso eta iheslarien alde kantuan. Urte asko dira baita ere, Espainiako eta Frantziako indar polizialek euskal senideon aurka ematen duten erreprosoak bizirik dirauela».

Leaburun argazkia eta salaketa

Leaburu-Txaramako hainbat biztanlek argazkia atera zuten ezker abertzaleak deituta, Andoni Otegi-ri elkartasuna azaltzeko eta ondoren berari bidaltzeko. Eguberri egunean berriz, «presoen argazkiak lurrean azaldu ziren». Ezker abertzalearen ustez Udal zinegotzi baten lana izan daiteke, «lehen ere harrapatu baikenuen *señorito* hau pankartak, argazkiak, kartelak... kentzen».

Udaletxeko ikurrinaren inguruan, Alkateari zuzendu zaizkio Leaburu-Txaramako ezker abertzaleko kideak: «Lehen Andoniren argazkia Areto Nagusitik kendu zenuten, orain denona den ikurrina udaletxeko balkoitik desagertu da, noski zuek kenduta, zein izango da zuen hurrengo akzioa?».

» GABONETAKO ESKAINTZAK

Anoeta

■ **Gaur, abenduak 29.** Txuri-Urdinera irteera. Autobusa 10:30ean aterako da.

Aduna

■ **Gaur, abenduak 29.** Postal tailerra liburutegian 17:30etik 19:30era. Adinaren arabera bitalde egingo dira.

Larraul, Alkiza eta Aduna

■ **Gaur, abenduak 29.** 11:00etatik 14:00etara Txuri Urdinera irteera egingo dute. Autobusa Larrauletik 10:00etan abiatuko da, Alkizatik 10:15ean eta Adunara 10:30ean iritsiko da Donostiara joateko.

Ibarra

■ **Gaur, abenduak 29.** Iker Díaz-en eskutik Goazen *itsasora* musikala, 11:30ean Kultur Etxean.
■ **Bihar, abenduak 30.** Txalo taldearen eskutik *Kanpanilla eta Peter Pan-en itzala* antzerki emanaldia, 11:30ean Kultur Etxean.

Irura

■ **Gaur, abenduak 29.** 11:00etatik 13:00etara liburutegia eta haur txokoa. 17:30ean Musika Eskolako areto nagusian Dar Dar taldearen

Egizu lo Tartalo txotxongilo-ikuskinzuna. 17:00etatik 19:00etara Gaztelekuan zirkoi ikastaroa.

■ **Bihar, abenduak 30.** Gaztelekutik txangoa Bilboko Eguberrietako Haur parkera. 11:00etatik 13:00etara liburutegia eta haur txokoa. 17:30ean Musika Eskolako areto nagusian Iker Díaz-en *Goazen itsasora* ipuin-musikatuen emanaldia.

■ **Etzi, abenduak 31.** 10:00etan plazatik abiatuta Loatzo mendira egun pasa.

Tolosa

■ **Gaur, abenduak 29.** Bideojolasa: *Sing Star* eta *Wii* jokoeekin, Topagunean.

■ **Bihar, abenduak 30.** Eskularen tailerra Topagunean.

■ **Haur parkea.** Abenduaren 31ra bitarte Zerkausian, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik.

Zizurkil

■ **Abenduak 29 eta 30.** Jolasak 09:30etik 13:00etara Pedro M. Otaño Ikastetxean.

■ **Gaur, abenduak 29.** Txuri-Urdinera irteera egin dute, 15:15eko trenean.



100 urte dituen amona Mariari etxera eman zion oparia Olentzerok Gaztelun, haurren laguntzarekin. HITZA



Belauntzan Olentzerori harrera beroa egin zioten haurrek. Ikazkina eta bere astoa oso pozik ibili ziren. HITZA



Leaburu-Txaramako Ezker Abertzaleak deituta, hainbat biztanlek Andoni Otegi-ri elkartasuna azaldu zioten. HITZA



Amezketan preso eta iheslarien alde ibili ziren kantuan goizez eta arratsalde, hilaren 24ean. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musikalak

■ **Ibarra.** Iker Diazen eskutik *Goazen itsasora* musikala Benito Izagierre kultur etxean 11:30ean. Ikusizun musikala da, itsasoari buruzko istorio entretenigarri eta kantu eder hungigarriz osatua.

Lehiaketak

■ **Tolosa.** Bihar bukatuko da *Emakumeak eta migrazioak* izeneko komiki lehiaketan lanak aurkezteko epea. Komikiak Tolosaldea Garazteneko Inmigratio Sailean entregatu daitezke.

Tailerrak

■ **Tolosa.** Haur Liburutegian bihar 12:00etan 8-12 urte bitarteko haur eta gazteentzat, astronomiari buruzko tailerra: galaxiaren, atmosferaren konposaketaren eta astronautek traje espazialean sartzeko dituzten zailtasunen berri emango dute. Esperimentu bat extera eramateko aukera ere izango dute.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Iñaki Elolaren argazkien erakusketa Beti Alai tabernan etzi, hilak 31, bitarte. *Tolosa angularrean* izena du erakusketak.

Kontzertuak

■ **Tolosa.** Musika Bandaren Urte Zaharreko kalejira Alde Zaharreko kaleetan zehar etzi 20:00etan Gorriri plazatik abiatuta.

Festak

■ **Alegia.** Ume festa arratsaldean Gaztetxean, 22. urtemuga dela eta.

Zinema

■ **Tolosa.** *Pluk eta bere garabia* haurrentzako filma euskaraz Leidor aretoan 17:00etan.
■ **Tolosa.** *Prop & Berta* haurrentzako filma euskaraz bihar Leidor aretoan 17:00etan.
■ **Tolosa.** Javier Corcuerearen *Checkpoint rock* filma Leidor aretoan bihar 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.
■ **Alegia.** Bihar 21:30ean zine-kluba Gaztetxean, 22. urtemuga dela eta.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 09 15.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Händel-en 'Messiah' Leidor aretoan

TOLOSA ● George Friedrich Händel-en *Messiah* obraren zatiak entzun ahal izan ziren Tolosako Orfeoiaeren Eguberrietako Kontzertuan, pasa den asteazkenean Leidor aretoan. Urteroko moduan jende asko gerturatu zen ikuskizunarekin gozatzera eta Tolosako Orfeoiaerekin batera Amaya Ar-

beras sopranoaren, Marife Nogales kontraltoaren, Jon Plazaola tenorearen eta Jesus Garcia Arejula baxuaren ahotsak ere entzun ahal izan ziren. Emanaldi borobila eskaini zuten guztiak Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean. NEKA

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

IRUÑA JATETXEA

IRUÑA JATETXEA, 28 urte hauetan izandako harreragatik, eskerrak emanez agurtu nahi ditu bere bezero eta lagunak **abenduaren 30ean, arratsaldeko 18:30**etatik aurrera, emango den lunch-era gonbidatuz.